

**FORU OROKORRAREN BERRIKUNTZA ETA
ESTATU HAZKUNDEAREN ZENTZU MODERNUA
GOI NAFARROAN ETA BAXENABARREN
XVI-XVII MENDEETAN**

MANEX GOIHENETXE

I GOI-NAFARROATIK

Erdi Aroko Foru Orokorren berrikuntza aipatua izan zen 1511-ean Nafarroako Gorteen batzarrean. Orduan zen gogorki eztabaidatua izan Nafarroako erakunde politikoen berrikuntza, jadanik XV. mendean Labrit-eko Joan-ek hasi zuena, 1494ean Nafarroako koroa eskuratu zuelarik:

«Dakizuen bezala, elizak eta nobleziak eskaturik, erresumaren berriztapena aurkeztu genuen herriaren (oinatzeak) arintzeko» (R.A.C. F.º 70, 84).

Berriztapen honen ardatz nagusienetarik bat erret ontasunen zaintzea eta zerga-sistema sendo baten finkatzea izan zen:

«Herri xumeak ezin baitu jasan hoin ezberdinki eta dorpeegi era-tiak diren erret-errentak» (Ibid).

Bere erregealdiaren hasieran Labrit-eko Joan-ek asmo zehatzak argi azaldu zituen Gorteen aurrean: gobernu zentraleko eta erret-aginteko egiturak erraberritu, bereziki Goi Epaitegia, Erret Kontseilua, Erretxea, moneta eta «hermandat» deitu armada edo milizia. Baina arrakasta guti ardie-tsi zuen Erregeak lehen saio honetan, salaketa bipilak jali bait ziren Gortee-tako biltzarkideen gandik, hauek erranez Erregearen korregidoreak eta aholkulariak eta administratzaileak ez zirela «Nafarroako Forupekoak, ohi-turaz eta hizkeraz atzerritarrak zirela». (Ibid. F.º 54). Egia da, Labrit-eko Joan Nafarroarat etorri zela Biarnaldeko eta Okziternaldeko funtzionari batzuekin.

Baina 1511-eko Batzarrean bere asmoak berriz azaldu zituen erret agin-tariak eta erakutsi zein zen koroaren xede garbia: erret agintearen gorenta-suna eta lehentasuna zaindu, Estatu modernu baten aginpideak eratu, lege-gintzaren baterakuntza eta aginte politikoaren zentralizatzea bide beretik eramanez.

A. Erret-agintearen goentasuna.

1. Erret boterearen berrikuntza eta Gorteen eskuperatzea.

Asmo hori argi eta garbi azaldua izan zen 1511-eko Gorteetako Batzaurrean. Alabaina kontuan hartu behar da nobleziak eta hiritako aristokrazia-burgesiak zuela ordurarte Gorteak menperatzen: «*perlados, ricos hombres, condes, barones, caballeros, ijosdalgos, mensageros de las ciudades e buenas villas*». Ohore eta aginte gose zeuden bai nobleak bai hiritako ordezkariak, goren mailako alor politikoa zaindu nahi zuten beren interesen indarpean. Erregearen eta Gorteen arteko eragozpen larria legegintzarako aginteari buruz izan zen: nork egiten du legea? noren gandik jaltzen da legea? Erdi Aroan, aginte politikoa sakabanaturik zen giza talde eragingarrienen artean eta Nafarroako arazoan hiru ata1 nagusi bereiz zaitezken:

1. Goi mailako eliza, bereziki monastegi haundietako abadeak: «*perlados...*»
2. Noblezia: «*ricos hombres, condes, barones...*»
3. Hiritako ordezkariak, aristokrazia modura bizi zen burgesiak osatua: «*mesageros de las ciudades e buenas villas*».

Horiek ziren giza talde ahaltsuenak edo eragingarrienak, Erregearen aginteari mugak finkatu zituztena Erdi Aroan zehar, Foru Orokorrari esker itunbidezko aginte erabilpena zainduz. Baina, geroztik erret absolutismoa indartu eta zabaldu zen, Gorteen ahalak murriztu ziren bereziki nobleziaren eragina. Gorteen legegintzarako boterea mugatu nahi du Erregeak, ohizko funtzio feudala bakarrik betearaziz Gorteei, aholku ematea:

«*Porque sera bien veaes e mireys goardando la onrra y serbicio nuestro y se provea en esto con consejo parescer e madura deliberacion vuestra*» (R.A.C. F.º 75v, 81).

2. Giza talde ahaltsuenen eragina apaldu.

Erregetzaren gorespina eta lehentasuna segurtatzeko, erret aginteari oinarriak emateko, ohizko erakunde zahar nobleziadunen eragina ezeztatu edo mugarritu behar zen, bereziki nobleek beren artean sortutako gudateak eta anarkia gaudituz: «*y se cometen delictos y excessosy acaescen muchos inconbenientes de cada dia (...) loquoal todo contraria y perturbo mucho a la justicia*» (R.A.C., F.º 75 r/v).

Egia erran nobleziaren barne-ahuleziaz gehien baliaturik zen monarkia-
ren boterea sakonki indartu. Nobleziaren eskupera eroria zen justizi ekin-
tza, jaun-errenta bilketa, nekazariei nobleek zizkien legez kanpo kentzen
petxa eta beste zerga anitz, erregearen onespelik gabe. Erreinuak jasaiten
zituen makurbide eta eragozpenak aipatu zituen erret-agintariak, zuzenki
salatuz haundikien jokamoldea:

«Y tambien en cosas graves y scandalosas y grande que acaescen entre partes (Ibid).

Makurbide eta zuzengabekeria horiek Estatu botere publikoa ahuldurik eta ezindurik emana zuten, erret-ontasunak murrizturik eta hondaturik. Administrazioa eta justizia birmoldatuz, erret agintearen boterea finkatu behar zen, Nafarroako gizartearen gain koroapeko Estatu berrituaren erakundeztatena segurtatuz.

B. Nafarroako Estatu modernuaren oinarriak eta baliabideak.

1. Boterearen zentralizazioa erret-kontseiluaren legepean.

Ordurarte bi egitura erabiliak ziren monarkiaren gobernupean: Goi Epaitegia (Corte Major) eta Erret Kontseilua. Nobleziaren ordezkariak aspaldidanik Goi Epaitegiaren jabe bihurtuak ziren, Agramontiarrek eta Beaumontiarrek. Bi taldeen arteko etsaigoaren hondamena salatu zuen Labrit-eko Joan-ek. Aterabidetzak, Erreinuko egitura sozio-politikoen birmoldaketa Erret Kontseiluaren eskupean eramango da. Honen esku izango da tokian tokiko gobernubidea, goi mailako justizia, diplomazia, erret zergen eta errenten bilketa, armadaren agintaritza.

XVI mende hasieran nobleziak galdu zuen beraz Nafarroan garai batetako aginte politikoa. Eta Foru Orokorraren berrikuntza Erret Kontseiluaren ardurapean emana izan zen:

«Lo obieren en bien y con ellas ensembte diputaron para ello a los doctores de Jassu y Goyni y Maestre Lope y al bachiller de Liçaraçu y al fiscal y al prothonotario y (...) al bachiller de Sarria, Mossen Lope de Eulate, el bachiller de Redin y Sancho de Espeleta» (R.A.C. F.º 78 r. §2)

Jatsu-ko joan oso ezaguna da, monarkiaren zerbitzari kartsua, Goi Auzitegiaren buru 1494-ean, 1496-ean aldiz Erret Kontseiluaren buru. Foru berrikuntzarako batzordea eta bere eskupeko lankide guziak, edo Erret Kontseiluko edo Finatz Ganbarako arduradunak dira, hots Erregearen zerbitzari seguruak.

Legegintzaren baterakuntza

«...sino es de la contrariedad que adaquella si sigue de los diversos fueros y hordenanças y leyes deste nuestro regno (...estillo y practica y usos y costumbres que fazen ley que algunas repugnan e contradizen a otras». (R.A.C. F.º 75 r/v).

Aginte boteretsua lortzeko, usaia, ohitura, araudi eta lege ezberdin guziak bateratu behar ziren, aginte-batasuna lortzeko tokian tokiko legeak eta herri-foruak ere bateratu behar ziren eta lan hori izango zen Foru berrikuntzari dagokion ardatz nagusienetarik bat: erakunde politikoak eta legediak

bateratu, herri eta hiritako praxi politiko bereziak baztertuz: «*reduciendo las dichas leyes y fueros en uno*» (R.A.C. F.º 76, §3).

Justizi sakon eta zuzen batek ere legegintza-baterakuntza eskatzen du, Foru erraberrituak zianduko duena:

«*para la buena ministracion de la justicia son tanto necesarios las dichas leyes y fueros*» (R.A.C., F.º 75 v, §3)

3. Administral tresneria indartu.

Monarkia boteretsua lortzeko —«*el entretenimiento de nuestro estado*», «*el sostenimiento del estado real*»— erret funtzionarien eraketa eta kudearitzatza egokitu behar zen, justiziarako ministro onak —«*buenos oficiales e ministros*»— izendatuz, aginte-tresneria koroaren eskupean eratuz eta indartuz, administral hierarkia bat finkatuz, eskualde ezberdinak gobernatzeko Estatuaren funtzionarien eskupean, erret ofizioen bidez: «*el buen regimien-to ejercicio y conocimiento ejecución de los dichos officios y oficiales*» (R.A.C., F.º 77v, §4).

4. Finantz baliabide berriak.

Aginte-tresneria berritzeko, Estatuaren funtzionariak ordaintzeko, dirua behar zen, baliabide ekonomikoak segurtatu, monetaren baliakidetasuna sostengatu, erretxearen ontasanak zaindu, zerga, errenta eta erret-dre-txoen ordainketak berreskuratu nobleziaren gandik. Horretarako zerga-bil-keta sistema berritu behar zen Finantz Ganbararen kudearitzapean.

Estatu modernuaren erakundetzapena eta hazkundea lortzeko, ahalegin guziz saiatu ziren baliabide ekonomikoak segurtatzera, zerga iturri berriak bilatuz, Erregearen ardurape bakarrean zerga bilketa emanez, koroapeko funtzionarien laguntzarekin, Gorteetara, zerbitzu eske joan gabe, Finantz Ganbarako diru-kutxara herritar guzieren artean berdinki banatua zen zerga kopurua sarraraziz:

«*en la orden y forma que avra de dar sea tal que los cargos que de aqui en adelante vernan sobre el regno sean llevados e çufridos con toda yguoldad sin agravio ni danno de ninguno y el serbicio que se nos avra de fazer assi como la carga de nuestro estado va rescien-do mejor pueda ser remediado y por esto en los negocios que se tracta-ran agora y en adelante no ayan lugar las dilaciones y contrarieda-des que fasta aqui a abido en lopassado*» (R.A.C. F.º 76 r, §1)

C. Aro modernuko foralismoaren zentzua eta betekizun historikoa.

Euskal Herriko historiagrafia baten arabera historian zehar herriaren burujabetasuna adierazi eta zaindu zuen sistema-politikoa izan zen Forua. Egia ziteken Erdi Aroan, boterea banatua zelarik gizarteko gorputz, era-kunde edo talde indartsuenen artean, nehork ez zuelarik oraindik eskuratua goi aginte zentralizaturik. Boterearen erabilpena itunbidezkoa zen, Erre-

gearren eta talde eragingarrienen arteko kontratu, hitzarmen edo antzeko konponketa zerbaitetan oinarriturik.

Baina Aro modernuko egunsentian, foralismoaren zentzua bestelakatu zen, gizarte osoaren gaintik Erregeak bere agintea zabaldu zuelarik, koroaren interesak eta ahalak zaindu nahian. Estatu erakundetuaren espresabidea eta baliabidea bihurtu zen beraz Foruaren berrikuntza, legegintza baterakuntza eta aginte batasuna segurtatuz. Foru berrikuntzari esker botere sozio-politiko feudalak baztertuak izan ziren, eta botere modu feudal sakanatuak Erregearen esku bakarrera ekarriak.

II BAXE-NAFARROARA

Abendoaren 22-ean bukatu ziren 1511-eko Gorteen jardunaldiak eta bereala lanean hasteko manua ukan zuen Foru berrikuntzarako batzordeak. Baina ondoko urtean, Nafarroa konkistatu zuen Errege Katolikuak eta Foru berrikuntzarik ez zen izan.

Legezko erret-agintariei —Labrit-eko Joan eta Nafarroako Katarina—, gelditu zaizkien bakarrik mendiaz bestaldean (edo honaldean) ziren «*tierras de Ultrapuertos*» deitu lurrak, eta hor Erreinu berri bat eraiki zuten. 1789 arte iraun zuen Baxenabarreko Erreinuak. 1520-etik goiti egoera politiko nahasia eta mugikorra gaunditua izan zelarik, gobernu zentralaren eraketari lotu ziren erret agintariak, Nafarroako Erretxeko administraritzza, Erret Kontseilua, Diruzaingorako Ganbara eta Kantzelaritzza birmoldatuz.

Legedi edo Foru berri baten idazkera aipatua izan zen bakarrik 1575-ean, Gorteen eskaturik, Erreinuako giderren eskuratzen hasi zelarik Enrike III-a

«*que lod. estil, coustumes et aranzel sien redigitz per escriut*» (a. nat., K 1233, n.º 8)

Lehen testo bat idatzia izan zen, Gorteetako sindikatuak bultzaturik eta landurik. Gero, zer gertatu zen? 1591eko idazki baten arabera zuzenketarako batzorde bat izendatua izan zen. Esponde Erret-Idazkaria eta Logras Kantzelaria buru;

«*sus la requeste presentade aus fins que los fors e costumers qui eren redigitz per escriut sien rebiz et authenticquat*» (A.D.P.A. C 1542).

1601-ean ordezkari bat (1) Erregearen gana bialdu zuten Gorteen, Foru berriaren aurkezteko:

(1) 1601-ean Erregealderako ordezkari bat parte hartu zutenak ziren:

Etxauz-eko Bertrand (Baionako apezpikua), Belsuntzeko Jauna (Erretxeko zerbitzari egona, gaztelu zain eta Amikuzeko baile bihurtua), Armendaritzeko Jauna (Mehaineko bizkonterraren jabe zena eta Arbelako baile).

«*Laus toutz estantz unanimes et d'un comun acortan trovat estar convenable e necessary de eslegir nomar e depputar aucuns personadges calificats deud. present royaume*» (A. nat. C 1531, F.º 58).

Baina testoa ez zuen onartu Erregeak eta zuzenketarako batzorde berri bat izendatua izan zen 1608-ean (2):

«*per visitar las coustumes e for deudict present Reaume apres que seran coupiades e metudes au net per las conferir ab lo broilhard que s'es trobat enpouder deu sindicq*» (A.D.P.A. C1544).

Kantzelaritzak ere bere aldetik zuzenketa lan bat egin zuen eta Gorteeek azaldu zituzten asmo politikoak salatu:

—«*lequel article semble par trop restreindre l'autorité du Roy*».
 —«*plusieurs articles qui vont conduire a l'affaiblissement de vostre autorité et diminution de vostre domaine*».
 —«*à vostre maiesté seule appartient d'establi des Loix*».
 (B. nat. eko 7047 eta 15519 zenbakien laburpena)

Idazki honetan agertzen dira Kantzelaritzako jendearen ideia politikoan ardatz nagusiak eta Erdi Aroaren bukaeran zabaldu ziren iritsi politikoak, Erregearen gorentasuna eta lehentasuna zaintzen zutena. Erregearen erabateko aginte osoaren defendatzaile suharrenak agertu ziren Kantzelaritzako aholkulariak, monarki boteretsuko Estatu bat eraiki nahian. Ondorioz eztabaida gogorak ere sortu ziren Gorteen eta Kantzelaritzaren artean, biak bait ziren orduko botere-ardatz, bata (Gortek) Erdi Aroko praxi politikoari loturik, bestea erret-botereari. Bi boteregune goren hauen proiektu politikoak bata bestearen aurkakoak ziren. Aitor dezagun Gorteen asmo politikoak ideia zaharkitua zela XVI-XVII. mendeetan. Ez ahantz, 1589-ean, Nafarroako Enrike III-a Frantziako Enrike IV-a bihurtu zela, monarkiaren agintaritzak berreskuratuz eta indartuz. Eta ororen buru, Kantzelaritzako asmo politikoak ziren nagusitu eta Foru berriaren zuzenketa, talde hertsitak Parisen burutu zuen 1611-ean Erretxeko A. Galland ministroaren inguruan, Etxauztiar bi anaiekin eta P. Bidart Erret ikustatzailearekin batera P. Lhostal kantzelari-ordeak ere parte hartzen zuela.

«*En l'année 1611 le Roy commit A. Galland mon père et quelques uns des plus considérables du pays pour dresser un coustumier en la basse Navarre (...) L'assemblée fut tenue à diverses fois en sa maison*» (B. nat. 16674)

Hemendik aurrera, Baxenabarreko Gorteen jarrera nahiko nahasia izan zen. Alde batetik Foruaren mamia onartu zuten:

(2) 1608-eko zuzenketarako batzordea aldiz honela osatua izan zen:

1.º) Eskualdetako eta hiritako ordezkariak: Diharce, Colom eta Jauregui izenekoak.
 2.º) Elizako ordezkariak: Utziateko abadea, Akizeko Bikario Jenerala, Baionako apezpikua.
 3.º) Noblezia zahar eta noblezia berriko ordezkariak: Etxauz-eko bizkontea, gazteluzain eta Erregearen «pentsionari» zena, Garruzeko Joan Etxesarri (erret-zerga biltzailea), Garaziko Domingo Lohitegi (erret-zerga biltzailea), Arbelako Jauna.

«*Les Articles qui y sont contenus sont sains, justes, bons et convenables pour le régime*» (A.D.P.A C1545).

Ber denboran, Foruak zekarren ardatz politikoaren hertsapena salatu zuten:

«*Plaintes et doléances par chefs sur les renversements de leurs loys, coutumes, franchises, privilèges et libertés*». (A. nat. K 1233, n.º 60)

Azken finean, Gorteen atxikimendua eta zintzotasuna lortu zuen Erregeak, hauen boterea mugatua izanik ere, eta luzaz iraun bazuen ere gatazka politikoak. (1575-etik-1611 arte). Bere eskubideek eskatzen zuten gisan eratu zuen Estatua Erregeak, erret aginte politikoa zainduz eta indartuz. Bere asmo politikoen betetzeko ahalak zeuzkan Erregeak. Aginte soziala zeukan jende bat monarkiaren zerbitzari eman zuen, erret ofizioak salduz. Jatorri zaharreko nobleziaren ordezkariak, (Etxauz, Belsuntze adibidez), gazteluzaingoaz bestalde, erregearen gandik «pensione», «sari» eta «privilegio» eskuratu zuten, beren zerbitzoaren eta zintzotasunaren ordain edo truke. Areagoturik zegoen ere jatorri berriko nobleziaren eragina, burgesian oinarritu zena hasieran (Etxesarri, Lohitegi adibidez), lurjabegotik, merkatarizatit, finantzarizatit irabazi asko eskuratuz. Gero erret administral karguak erosi zituen, ofiziodun bihurtu, titulu nobleak lortu eta beraz erregeak eta jaurgoak osatzen zuten mundura heldu. Ikusten denez, gora biderik irekiena, sozialki igotzeko aukerarik erosoena, erret administraritzako ofizioak ziren. Adibiderik argiena P. Bidartek emaiten digu: goren mailako Erret-ikustatzaile izendatua izan zen, erran nahi baita ofiziodunen lana ikustatzen zuela, Erregearen izenean, Estatu zentralizatuaren eragina eskualde guzietan zabalduz. P. Bidartek emaiten digu: goren mailako Erret-ikustatzaile izendatua izan zen, erran nahi baita ofiziodunen lana ikustatzen zuela, Erregearen izenean, Estatu zentralizatuaren eragina eskualde guzietan zabalduz. P. Lhostal aldiz, Biarnoko negozio gizon baten semea zen, ezkontzaz Kantzelaritzako ofizioa erosi zuen eta goi-epaitegiko kargua betez, erret gorentasunaren izenean, esku osoa zeukan justizia egiteko, Erregearen borondatea eta boterea Erreinuko lurralde osoan ezarriko duen zerbitzari leial bihurtuz.

Egoera soziala Erregeren agintaritzari loturik zegoen, ontasun, abantail, eskubide, ohore, Erregearen zerbitzuak bait zuen emaiten. Irabazia, baita ere gizartearen gandik ardiesten zen haunditasuna zaintzeko biderik egokiena Erregearen zerbitzutik iragaiten zen. Bitarteko ziren talde ahaltsuenen eraginaz baliatu zen Erregea monarkia boteretsuaren alderako ideien tinko finkatzeko Foru berriaren mamia. Aski da Foruaren barneko gaien banaketari begiratzea:

- 1.º) 210 artikulua aginte politikoaz dira, honela banaturik:
 - erret-agintaritzaz: 9
 - erret-justiziaz: 191
 - tokian tokiko administraritzaz: 10

2.º) 163 artikulua gizartearen eraketaz dira (157 artikulua jendeen eta ontasunen zaindaritzaz eta kudearitzaz, 6 artikulua jaurgoaz).

3.º) 77 artikulua bakarrik eraketa ekonomikoaz.

Beraz, Estatu modernu baten oinarriak segurtatu zituen ere Baxenabarreko Foruak, agintaritzaren Errege baitan bildurik, legea eta administraritzaren bateraturik. Erdi Aroa iragana zen. Ikus daiteke ere arazo honen gaurkotatua. Lege baten itzalpean bizi baita eragin ezberdinek osatzen duten gizarteak. Foru idazkeraren historia ikertuz, euskal erakundeek zuzendu zuten agintearen erabilpena iker daiteke.

SORBURUAK EDO ITURRIAK

—*R.A.C.* : (Recopilación de Actas de Cortes, Iruñeko artxibategian)

—*A. nat.* : Archives nationales (Parisen)

—*B. nat.* : Bibliothèque nationale (Parisen)

—*A.D.P.A.* : Archives départementales des Pyrénées Atlantiques (Paben).

RESUME DE L'ARTICLE

FOR MODERNE, FORALISME, LES VOIES ET LES MOYENS DE L'ETAT EN HAUTE ET BASSE NAVARRE AUX XVI^è-XVII^è SIECLES

Sous le règne de Henri d'Albret, avant l'annexion de 1512, ensuite en basse Navarre devenue un Royaume, de Henri II d'Albret à Louis XIII, le foralisme revêtit un sens précis. Il s'agissait pour les souverains navarrais —en fait les princes béarnais— de réduire les obstacles à la prééminence de l'autorité monarchique, par un meilleur contrôle des Etats en tant qu'organe représentatif, par une réduction de l'influence des corps sociaux dominants qui avaient provoqué, par leurs abus, l'aliénation et l'affaiblissement du domaine royal et porté atteinte à la souveraineté royale. La réforme du «Fuero General» avait pour but de mettre en place les nouveaux moyens d'action de l'état moderne, par la centralisation du pouvoir, le renforcement des compétences du Conseil royal, par l'unification de la législation, notamment dans le domaine judiciaire, par le renforcement de l'armature administrative. Nous ne sommes plus au Moyen Age où le pouvoir était éclaté entre les différents corps sociaux sans qu'aucune autorité supérieure centralisée imposât

l'unité. L'exercice du pouvoir n'était plus l'objet d'un contrat entre le souverain et les groupes sociaux dominants. La tendance était à l'organisation d'un pouvoir politique centralisé, unifié, sous le contrôle du roi et de ses officiers. La rédaction du For moderne de basse Navarre doit être situé dans le mouvement européen qui consacre, à la fin du Moyen Age, le développement de l'absolutisme, les progrès de l'unification et de la centralisation. Et les éléments de la bourgeoisie et de l'aristocratie liés à l'appareil d'Etat ont joué un rôle indispensable de relais entre le pouvoir central et les structures locales. En fin de compte, désormais le For définit un statut politique original, inspiré par un corps de doctrine qui renforce les prérogatives fondamentales de la puissance politique moderne. L'élaboration et la confection d'un nouveau For sont intégrées dans la structure politique d'un appareil de domination subordonnant l'entité sociale à l'Etat.